

# Kontsumorako kredituari buruzko informazio normalizatua:

## VIAJES TXARTELA + BBVA

Letra "Iodiz" nabarmendutako informazioak bereziki garrantzitsuak dira, Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularrean aurreikusitakoaren arabera.

### I. KONTSUMORAKO KREDITUARI BURUZKO INFORMAZIO NORMALIZATUA:

#### Viajes txartela + BBVA

##### 1.- Bankuaren nortasuna eta harekin harremanetan jartzeko xehetasunak.

Bankua:

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A.

Helbidea: Plaza San Nicolás, 4 - 48005 BILBO.

Telefono-zenbakia: 91 224 94 26

Web-orriaren helbidea: www.bbva.es

##### 2.- Kreditu produktuaren ezaugarri nagusien deskribapena.

###### ■ Kreditu mota. KREDITU-TXARTELA.

###### ■ Kredituaren zenbateko totala.

- Hau da, gehieneko zenbatekoa edo kontsumitzailearen esku jarritako kopuru guztien batura, kontratuaren testuinguruan.

**Kredituaren muga: 600 eta 2.000 euro artean**

###### ■ Funtsen xedapena zuzentzen duten baldintzak.

- Hau da, kontsumitzaileak noiz eta nola lortuko duen dirua.

**Hurrengo funtzio guztietarako edo batzuetarako erabili ahal izango dira txartelak:**

- Ondasun eta zerbitzuen ordainketa kreditu-mugaren aurka, txartelak parte diren eta horietan agertzen den txartelen sistemaren (Visa/ MasterCard) kide diren establezimenduetan.**

- Zordunketa eta kreditura eskudirua ateratzea txartel bidez kutxazain automatikoetan eta bankuaren bulegoetan eta hori baimentzen duten beste erakunde horietan.**

###### ■ Kreditu-kontratuaren iraupena.

- Epeak eta, hala dagokionean, epekako ordainketak egingo diren hurrenkera.

**Kontratu honek iraupen mugagabea izango du. Txartel bakoitza baliozkoa izango da bertan inprimatuta agertzen den hilabetearen azken egunera arte, ezingo delarik hori aipatutako dataren ostean erabili, eta bankuari itzuli beharko zaio edo suntsitu egin beharko da, bankuak aurrekoaren ordezkio berria bidaltzen duen unean.**

Kreditu-txartelaren titularrak hurrengo sistemetako bat edo gehiago hautatu ahala izango ditu txartelaren mugaren aukera xedatutako kapitalaren itzultzerako:

- Ordainketa, gutzira: hileroko, kreditu-txartelaren kontuaren hileko laburpenak islatzen duen erabilitako saldoaren gutzizkoa zordunduko da "Ordainketen helbideratze-kontuan".

"Kreditu-txartelaren kontua"-ren aurkako eskudiru xedapenen kasuan edota "Kreditu-txartelen kontu"-tik "Ordainketen helbideratze-kontu"-ra egindako eskudiru intsuldaketen kasuan, bankuaren alde urteko % interes-tasa nominala sortuko da, xedapen unetik likidazio egunera arte.

- Atzeratutako ordainketa: aldi berean ahalbidetu egingo ditu hurrengo aukerak:

- 1) Hileko ehuneko batengatik: gutxienez hileroko itzuleraren % 3 izango da, hileroko laburpenean agertzen den saldoaren zenbatekoari aplikatuta. Kantitatea dagokion likidezia aldian sortutako interesen eta komisioen gehi likidezia baino lehenagokoa izango da. Beste ehuneko bat aukeratu ahal izango da, % 3 baino handiagoa eta % 100 baino baxuagoa. Dena den, "Kreditu-txartelaren kontu"-ko ordaintzeke dagoen kapitatek aukeratutako ehuneko aplikatzearen emaitza, gehi interesak eta komisioak, hileko 5 euroko kopuru finkoa baino baxuagoa izango balitz, kantitate hori kargatuko da (Amortizaziorako gutxienezko kuota finkoa).
- 2) Hileko kopuru finkoarengatik:
 

Horrek suposatzen du kapitala, interesak eta komisioak barne hartzen dituen hileko kopuru finkoaren itzultzea. Hileko kopuru finko horren kopuru minimoa 12 € izango da, eta beste edozein kopuru handiagoa aukeratu daiteke.

Bi aukeretan, hileroko diru-itzultze minimoa saldoaren % 3 bidez zehaztuko da, "Kreditu txartelaren kontu"-ko laburpenari jarraiki. Kantitatea dagokion likidezia aldian sortutako interesen eta komisioen gehi likidezia baino lehenagokoa izango da.
- c) Pertsonalizatutako ordainketa:
 

Sistema hori txartelean egindako eragiketaren zenbatekoaren itzultzea edo likidazioaren ostean xedatutako hileko saldoaren guztizkoa betiere 50 € edo gehiago denean, hileko kuota finko (kapital eta interesak barne hartuko dituztenak) kopuru jakin baten ordainketaren bitartez egitean datza. Kuoten zenbatekoa aldatu egingo da titularrek aukeratutakoaren arabera; gehienez 36 kuota eta gutxienez 3.

Era berean, aukera duzu interesik gabe 3, 4, 5 edo 6 kuotetan ordaintzeko, geroratzearen kudeaketagatik komisio batekin, geroratutako zenbatekoaren %0,75, %0,95, %1,15 edo %1,35 izango dena, hurrenez hurren.

Sistema hau eskatu den likidazio zehatz bakoitzari aplikatzen zaio berariaz.

Hilerokoa izango da modalitate guztietan ordainketen maiztasuna.

■ **Ordaindu beharko duzun zenbateko totala.**

- Hau da, xedatutako kapitalaren zenbatekoa gehi interesak eta zure kredituarekin erlazionatutako gastu posibleak.

Ordainketa-modalitateen arabera izango da ordaindu beharreko guztizko zenbatekoa:

**a) Guztizko ordainketa:**

**Balizko kreditu-muga 1.500 eurokoa izango balitz, hileroko bere osotasunean establezimenduetan egindako erosketen bitartez erabilia, hileko likidazio epealdi batean zehar, ordaindu beharreko guztizko zenbatekoa hilean 1.500 €-koa izango litzateke eta 12 hilabetetan**

**zehar, 18.015€ barne hartuz 15 €-ko urteko komisioa, kreditu-txartela jaulki eta mantentzeagatik, eta lehen urtean kobratuko da hori.**

**b) Atzeratutako ordainketa:**

**1) Hileko ehuneko batengatik.**

Balizko kreditu-muga 1.500 €-koa izango balitz, bere osotasunean establezimendu batean egindako erosketak bakarrenean erabilia txartela kontratatzen duen egun berean (adibidez, maiatzaren 1ean), urteko interes-tasa nominala % 4,75koa izanik eta une bakoitzean erabilitako saldoaren % 41ekoak izanik hileko itzultzeak; guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 12 hilabetetan 1.530,57 €-koa izango litzateke, gehi 15 €-ko urteko komisioa, kreditu-txartela jaulki eta mantentzeagatik, lehen hilabetean kobratuko dena.

**2) Hileko kopuru finkoarengatik.**

Balizko kreditu-muga 1.500 €-koa izango balitz, bere osotasunean establezimendu batean egindako erosketak bakarrenean erabilia txartela kontratatzen duen egun berean (adibidez, maiatzaren 1ean), urteko interes-tasa nominala % 4,75koa izanik eta 130 euroko hileko kuotarekin (kapitala, interesak eta komisioak barne hartuko dituena). 12 hilabetetan itzuli beharreko guztizkoa 1.554,84 eurokoa izango litzateke, 130 euroko 11 kuotaren bitartez, gehi 124,84 euroko azken kuotarekin; ordaindu beharreko guztizko zenbatekoaren eta aurreko hileko itzultzeen baturaren arteko diferentziaz eratorritako zenbatekoa da hori. Lehen kuotak 15 €-ko urteko komisioa du, kreditu-txartela jaulki eta mantentzeagatik ordaindu beharrekoa.

- c) Balizko kreditu-muga 1.500 €-koa izango balitz, bere osotasunean establezimendu batean egindako erosketak bakarrenean erabilia txartela kontratatzen duen egun berean (adibidez, maiatzaren 1ean), kapital eta intereseko hileko 12 kuotatan ase behar dena (lehen kuotak interesak bakarrik barne hartuko dituelarik) eta urteko interes-tasa nominala % 4,75koa izanik, hau izango litzateke 12 hilabetetan ordaindu beharreko guztizko zenbatekoa: 1.556,87 €; barne hartuz 15 €-ko urteko komisioa, kreditu-txartela jaulki eta mantentzeagatik.

Balizko kreditu-muga 1.500 eurokoa izango balitz, bere osotasunean establezimendu batean egindako erosketak bakarrenean xedatua txartela kontratatzen duen egun berean (adibidez, maiatzaren 1ean), kapital eta intereseko hileko 6 hilabetetan ase behar dena (lehen kuotak kapitala eta komisioak hartuko dituelarik), hurrengo izango litzateke ordaindu beharreko guztizko zenbatekoa: 1.535,25 €; barne hartuz % 1,35koa atzerapeneko kudeaketa komisioa gehi 15 €-ko urteko komisioa, kreditu-txartela jaulki eta mantentzeagatik.

kreditu-txartela).

### 3.- Kredituaren kostuak.

#### ■ Tasa zorduna.

Gutzizko ordainketa eskudiru xedapenatarako edota "kreditu-txarteleko kontutik" "ordainketak helbideratzeko kontura" egindako intsuldaketatarako, urteko nominala % 4,75 izanik

Txartelaren kontutik/ordainketa atzeratua, urteko nominala % 4,75 izanik.

Ordainketa pertsonalizatua, urteko nominala % 4,75 izanik.

Interesik gabeko pertsonalizatutako ordainketa: ez da inolako interesik aplikatuko.

#### ■ Urteko tasa baliokidea (UTBa).

- UTB kredituaren kostu osoa da, kredituaren zenbateko osoaren urteko ehunekoan adierazita. Eskaintza desberdinak konparatzeko erabiltzen da UTBa.

Aukeratutako ordainketa modalitatearen arabera izango da:

Balizko guztizko ordainketa modalitatea aurreko atalean adierazitako parametroekin; UTBa % 1ekoa izango da.

Balizko atzeratutako ordainketa modalitatea hileko ehuneko batengatik, aurreko 2. atalean adierazitako parametroekin; UTBa % 9,79koa izango da.

Balizko atzeratutako ordainketa modalitatea hileko gutxieneko kopuru batengatik, aurreko 2. atalean adierazitako parametroekin; UTBa % 6,74koa izango da.

Balizko pertsonalizatutako ordainketa modalitatea, aurreko 2. atalean adierazitako parametroekin; UTBa % 6,70koa izango da.

Balizko pertsonalizatutako ordainketa modalitatea interesik gabe, aurreko 2. atalean adierazitako parametroekin; ondoriozko UTBa % 8,47 izango da.

Balizko egoera guztietan kontuan hartu da kreditu-txartel baten jaulkipen eta mantentzeagatik urteko komisioaren ordainketa.

#### ■ Derrigorrezkoa al da kreditua lortzeko (eskaintako baldintzetan) kreditua bermatuko duen aseguru-poliza edo beste zerbitzu osagarriren bat kontratatzea?

EZ

#### ■ Erlazionatutako kostuak.

- Ordainbide jakinaren erabilereagatik (adibidez,

Hurrengoak izan daitezke txartela erabiltzeagatik komisio aplikagarriak:

#### a) Kreditu-txartelaren jaulkipen eta mantentzeagatik urteko komisioa:

Jaulkitako lehen txartela: 15 €

Jaulkitako gainerako txartelak: 15 €

#### b) Kopia jaulkitzeagatik komisioa: 0 euro.

#### c) Eurogunetik kanpo txartela erabiltzeagatik komisioa: % 1,5 kontrabaliaren gain eurotan.

#### d) Kutxazain automatikoetan txartelaren bidez eskudirua zordunketan edo kredituan ateratzeagatik komisioa.

Kutxazain automatikoetan txartel bitartez eskudiru ateratzeagatik komisioak	Zordunketan		Kredituan	
	%	Gutx. (€)	%	Gutx. (€)
BBVA Taldearen kutxazainak Espainian	-	-	% 1,75	1,50€
Espainiako BBVA Taldearen ez diren kutxazainak	1. oharra	1. oharra	2. oharra	2. oharra
Espainiatik kanpoko kutxazainak	% 4,50	3,00 €	% 5,00	3,00 €

(1) Espainian eurotan txartelarekin zordunketa bidez ateratako eskudiruarengatik, BBVA Taldekoak ez diren erakundeen kutxazain automatikoetan, kutxazainaren erakunde titularrak BBVAri kobratutako zenbateko bera kobratuko du BBVAk. Zenbateko hau kutxazainaren erakunde titularrak jakinaraziko du eskudirua atera baino lehen.

(2) Espainian eurotan txartelarekin kreditu bidez ateratako eskudiruarengatik, BBVA Taldekoak ez diren erakundeen kutxazain automatikoetan, kutxazainaren erakunde titularrak BBVAri kobratutako zenbateko bera kobratuko du BBVAk. Zenbateko hau kutxazainaren erakunde titularrak jakinaraziko du eskudirua atera baino lehen. Halaber, BBVAk komisioa kobratuko dizu Espainian BBVA Taldeko adierazitako kutxazainetan kredituan eskudirua ateratzeagatik. BBVAk jasanarazitakoaren osagarria da komisio hori.

Bulegoetan txartelaren bitartez eskudirua ateratzeagatik komisiokoak	Zordunketan		Kredituan	
	%	Gutx. (€)	%	Gutx. (€)
BBVA Taldeko bulegoak Espainian	-	-	% 1,75	1,50 €
Servired sarean intregatutako bulegoak Espainian	% 5,00	3,00 €	% 5,00	3,00 €
Servired ez den beste saren nazional bateko eta EBeko herrialdeetako bulegoak (eurotan)	% 5,00	3,00 €	% 5,00	3,00 €
Bulegoak atzerrian eta EBean (eurotan ez)	% 5,00	3,00 €	% 5,00	3,00 €

e) Kreditu-mugara zordunketa duten funtsen inzuldaketak egiteagatik komisiokoak.

- BBVAren kontu pertsonalera: % 1,50.

f) Kutxazainetan kontsultak egiteagatik komisiokoak:

- BBVA Espainian: 0 euro.
- BBVA eta EB ez: 0 euro.

g) Kreditu-mugan gauditutakoaren gaineko irekitze-komisiokoak: Gauditutako handienaren gain % 1,5, eta gutxienez 3 euro.

h) Atzerapen kudeaketagatik komisiokoak pertsonalizatutako ordainketaren itzultze sistemaren interesik gabeko kuotetan atzeratzen diren ordainketen eragiketa bakoitzagatik jasoko da, Bankuak baimendutako aukeren arabera.

- 3 hilabeteko atzerapena: geroratutako zenbatekoaren gaineko %0,75.
- 4 hilabeteko atzerapena: geroratutako zenbatekoaren gaineko %0,95.
- 5 hilabeteko atzerapena: geroratutako zenbatekoaren gaineko %1,15.
- 6 hilabeteko atzerapena: geroratutako zenbatekoaren gaineko %1,35.

■ Aurretik aipatutako eta kreditu kontratuarekin lotutako gastuak aldatu ahal izateko baldintzak.

Aurreko komisiokoak aldatu egin daitezke eskatzaileari aurrez, indarrean sartu aurreko data baino bi hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazita, betiere eskatzaileak ez duenean bere onarpen eza adierazten aipatutako data hori baino lehenago.

■ Notarioaren derrigorrezko ordainsariak. EZ

■ Kostuak atzeratutako ordainketak izanez gero.

- Ordainketa bat ez egiteak ondorio larriak eragin ditzake (adibidez ordaintzeke dagoen zenbateko osoaren epemuga aurreratua) eta zaildu egin dezake kreditua lortzea.

Epez kanpoko posizioen erreklamazioagatik gehienezko 35 eurora arte.

Berandutze-interesak ase gabeko epez kanpoko kuoten gain; Txartelaren kontuaren urteko interes-tasa nominalaren berdina gehi ehuneko bi puntu gehiago.

4.- Beste alderdi juridiko garrantzitsu batzuk.

■ Uko egiteko eskubidea. BAI

Kreditu-kontratuari uko egiteko eskubidea duzu 14 egun balioduneko epean.

■ Aurreratutako itzultzea. BAI

Kreditua erabat edo partzialki eta edozein unetan aldeztu aurretik itzultzeko eskubidea duzu.

■ Bankuak eskubidea du konpentsazioa jasotzeko aurreratutako itzultzearen kasuan. EZ

■ Kreditu-kontratuko ereduaren proiekturako eskubidea. BAI

- Aurretik eskatuta, kreditu kontratuaren proiektuko kopia bat doan lortzeko eskubidea duzu. Ezin izango da dirua erabili eskaera egiten denean bankua ez badago prest zurekin kreditu kontratua gauzatzeko.

■ Epealdi horretan bankua lotuta dago kontratu aurreko informazioagatik. Informazio hori baliozkoa izango da soilik eskatzailearentzat bere harrera egunean.

■ Datu base baten kontsulta. BAI

Bankuak datu-base baten kontsultaren emaitza berehala eta kargurik gabe jakinarazi behar dizu, kreditu eskaerari uko egiten bazaio, mota honetako kontsulta baten oinarria kontuan hartuta. Hau ez da aplikatuko, lege batek edo Europar Batasuneko Zuzenbideak debekatzen badu informazio hori zabaltzea edo orden publikoko edo segurtasun publikoaren xedei aurka jartzen bazaie.

## 5.- Informazio gehigarria, finantza zerbitzuak urrutitik merkaturatuz gero.

### a) Bankuari dagokionez.

- Helbidea: San Nikolas plaza, 4 - 48005 BILBO  
91 224 94 26  
www.bbva.es
- Erregistroa: Bizkaiako Merkataritza Erregistroa, 2.083 Liburukia, 1. orria, BI-17-A orrialdea, 1. inskribatzea.
- Gainbegiratze agintaritza: Espainiako Bankua eta Balore merkatuaren batzorde nazionala.

### b) Kreditu-kontratuari buruzkoa.

- Uko egiteko eskubidearen erabilpena.  
Eskatzaileak 14 egun naturaleko epean uko egin diezaioke, arrazoia adierazi beharrik gabe. Epea kontratua egiten den egunean hasiko da. Dena den, ez balituzte jasoko kontratu-baldintzak eta dagokion kontratu-informazioa aipatutako egunaren aurretik, eskubide hori erabiltzeko epea zenbatzen hasiko da aipatutako informazioa jasotzen den egunean.  
Eskatzaileak bankuari jasota utzi behar dio jakinarazpena zuzenbidez onartutako edozein modutan. Ulertzen da epea errespetatu dela epearen amaieraren aurretik bidali bada jakinarazpena, paperean edo bankuak erabiltzen duen edo erabil dezakeen beste edozein euskarri iraunkorretan.  
BBVA kontratatzailearen bulegokoa izango da jakinarazpena bidali behar den helbidea.  
Eskatzaileak bankuari ordaindu behar dio kredituaren erabilera-data eta kapitalaren itzultze-daten artean aipatutako kapitalaren gain pilatutako kapitala eta interesa, uko egiteko jakinarazpenaren bidalketatik 30 egun naturaleko gehieneko epean. Adostutako interes-tasa zordunaren oinarriaren gain kalkulatu dira zordundutako interesak.
- Bankuak, kreditu kontratua gauzatu baino lehen, zuekin harremanak ezartzeko oinarri gisa onartzen duen legeria.  
Espainiako legeria aplikatuko da kontratua egin aurretik harremanak ezartzeko.
- Kreditu kontratuari eta auzitegi eskudunari dagokionez, oinarri hartu beharreko lege aplikagarrien inguruko klausula.  
Legeria espainiarra aplikatuko zaio kontratuari eta horretatik eratorritako erlazioei.
- Hizkuntza araubidea  
Dokumentu hau idatzita dagoen hizkuntzan emango

dira kontratuaren informazioa eta baldintzak. kontratua sinatzen duzun hizkuntzan jarriko gara zurekin harremanetan kreditu-kontratuak irauten duen bitartean.

### c) Errekurtsoari dagokionez

Eskatzailearen eskura dago bezeroarentzako arreta-zerbitzua bere kexa eta erreklamazioen kudeaketarako: Bezeroarentzako arreta-zerbitzua. Posta-kutxa 1598. 28080 Madril.

posta-elektronikoa: [servicioatencioncliente@grupobbva.com](mailto:servicioatencioncliente@grupobbva.com)

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren ebazpenarekin ados egonez gero, eskatzailea bezeroaren defendatzailearengana joan daiteke bigarren instantzian:

Posta-kutxa 14460. 28080 Madril. posta-elektronikoa: [defensordelcliente@grupobbva.com](mailto:defensordelcliente@grupobbva.com)

Bezeroaren defendatzailearengana joan aurretik erreklamazioa egin beharko zaio bezeroarentzako arreta-zerbitzuari.

BBVAk bezeroaren defentsarako araudia du, eta bertara sar daiteke, BBVAren edozein bulegotan eskatuz, edo [bbva.es](http://bbva.es) webgunearen bitartez, bezeroarentzako arretarako esteka espezifikoa.

Bi hilabetekoa da kexa eta erreklamazioak ebazteko gehieneko epea. Denbora hori igaro ostean eta BBVAk eskaintzen dituen instantzia guztiak agortuta, ez balitz kasua argituko edo eskatzailea ez balego ados bere erreklamazio edo kexaren azken erabakiarekin, helbide honetara zuzendu ahal izango du:

Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzua. Alcalá kalea, 48. zenbakia. 28014 Madril. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko Erreklamazio Zerbitzua:

Castellana pasealekua, 44. zenbakia. 28046 Madril.

## 6.- Geroratutako sinadura eta titularkidetasun-araubidea.

Urrutiko kontratazioa titularkidetasun-araubidean egiten bada, sinatuta duzun kanal anitzeko kontratuan aurreikusitakoan oinarrituz, lehen eskatzaile gisa ageri den bezeroak aitortzen du gainerako eskatzaileen, edo horietako baten, datu pertsonalak eman dizkiola BBVAri, kontsumorako kredituari buruzko normalizatutako informazioa kudeatzeko helburuarekin.

Lehen eskatzaileak adierazten du gainontzeko eskatzaileak interesa dutela dokumentu horretan erlazioatutako produktua/k kontratatzeko.

Gainontzeko eskatzaileek kontratu hori onartu ahal izango dute kreditu-txartelaren kontratuan agertzen den egunera arte. Adierazitako epean ez badute guztiak sinatu, iraungi egingo da eskaera. BBVAk kontratua ez dela egin kontsideratuko du eta jakinarazi egingo dizu.

Zuk edota gainontzeko titularren epe handiago nahi bazenute kontratu hori sinatzeko, jarri harremanetan zure BBVA kudeatzailearekin. Hilabeteko gehienezko epea duzue zuk

sinatutako kreditu-txartelaren kontratuaren datatik zenbatzen hasita.

## INFORMAZIO GEHIGARRIA.

### Ekainaren 27ko Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularra.

1. Txartelen segurtasuna babesteko titularraren/titularren neurriak.

Titularrak/titularrek eta txartelaren kontratuaren babespean jaulkitako txartelen gainontzeko erabiltzaileek (titularrak horiei guztiei erreferentzia egiteko), hurrengo neurriak hartu beharko dituzte txartelen segurtasun babesteko:

- a) Entregatzen zaien txartela zainitzea, eskuz sinatuz jasotzen dutenean eta egoera onean mantentzea.
- b) Sekretupean mantentzea bere zenbakia, Identifikazio pertsonalerako zenbakia (NIP) eta gainontzeko pasahitzak ezinbestean edo indarkeria egoeretan izan ezik.
- c) Ez idatzi NIPa edota txartelaren pasahitzak, ezta horri laguntzen dioten dokumentuetan ere, eta ez erabili NIPa edota pasahitzak, datuak edo data eragileak zure ohiko erabilerako dokumentuetan.
- d) Bankuari jakinaraztea txartelen galera, lapurreta, kopia edo NIParen edo pasahitzen behar ez den ezagutza, horri buruzko ezagutza duzunean, behar ez den atzerapenik gabe bankuaren edozein bulegotan, publikoarentzako arreta-orduetan edo txarteletan adierazitako telefono-zenbakien bitartez.

2. Baimendu gabeko eragiketen edo zuzen burutu gabeko eragiketen jakinarazpena.

Titularrek jakinarazi egin beharko diote bankuari txartelaren ordainketen helbideratze-kontuaren edo txartelaren kontuaren erregistroan baimendu gabeko edozein transakzio behar ez den atzerapenik gabe eta horri buruzko ezagutza

Dokumentu horren hasieran adierazitako finantza-produktuari buruzko informazio honek ez dakar bankuaren ematea, ezta horren objektuari dagokion eskaintza loteslerik.

duzen unean, bankuaren edozein bulegotan, publikoarentzako arreta-orduetan edo txarteletan adierazitako telefono-zenbakien bitartez, eta gehienaz ere zordunketaren datatik gehieneko hamahiru hilabeteko epean.

3. Ordainketa zerbitzuen hornitzailearen erantzukizuna baimendu gabeko ordainketa eragiketen kasuan.

Baimendu gabeko ordainketa eragiketaren bat burutzen den kasuetan, bankuak itzuli egingo du baimendu gabeko eragiketaren zenbatekoa.

4. Agindu-emailearen erantzukizuna baimendu gabeko eragiketen kasuan.

Titularrak ez dira haien baimenik gabe txarteletan eragiketa eragiketarik eratorritako galeren erantzule izango; iruzur ekintza batekin huts egiten badute edo nahita edo laxotasunarekin ez badituzte betetzen, aurreikusitako betebeharrak bat edo gehiago; kasu horietan erantzule izango dira, inolako mugarik gabe.

5. Txartelen erabileraren mugak. Bankuak beretzat gordeko du txartelak blokeatzeko eskubidea objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, txartelen funtzionamendu egokirako hartutako segurtasunarekin erlazionatuta egon daitezkeenak, haien baimendu gabeko edo iruzurrezko erabileragatik edota haien erabilerak nabarmen handiagotu badezake agindu-emailea ezgai izateko arriskua ordainketa betebeharrari aurre egiteko.

## OSO GARRANTZITSUA.

### NAHITAEZKOA DA EDOZEIN GAI EDO AZALPEN KONTSULTATZEA BBVA BULEGOAREKIN ETA EZ SINATZEA PRODUKTU EDO ZERBITZUAREN KONTRATUA ZALANTZARIK BADUZU.

Bankuak, eskatzailearen/eskatzaileengandik jasotako behar eta egoera finantzarioari buruzko adierazpena jarraituz, kontratu horren aurretiazko izaerarekin eman egin du nahikoa informazio eskainitako produktu desberdinei buruz ulertu ahal izan ditzazun horien ezaugarriak eta erabaki ahal izan dezazun zure interesentzat egokiena den kontratazioaren inguruan.

Halaber, bankuak jakinarazi egin dizu bere edozein bulegotan eta web-orrian kontsulta dezakezula ([www.bbva.es](http://www.bbva.es)), eta baita Espainiako Bankuarenean ere ([www.bde.es](http://www.bde.es)) BBVA eta bere bezero diren pertsona fisikoen artean azken hiru hilekoan ohikoenak izan diren komisio eta interes-tasei buruzko informazioa.

Produktu/zerbitzu horren kontratazio-prozesuan, bankuak ez dizu eman banku-gaietan aholkularitza zerbitzurik, eta ondorioz, ez du jaulki pertsonalizatutako gomendiorik zure ondasun egoeran oinarrituz eta kontratu honek erreferentzia egiten dion produktu/zerbitzuari dagokionez, eta ez dizu hori aurkeztu zure profilerako egoki gisa, eta hori aitortu eta onartu egiten du/te eskatzaileak/ek.